

Hilaren hamabia / Eskalea

Gregor Lozar



Itzulpena: Juan Mari Mendizabal Sarasua

bestehitzak **drugebesede**
||| | | ||

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



Hilaren hamabia

Gregor Lozar

Zitala zen, gero, atso zahar hura. Balkoiari iltzatuta egoten zen, egunak joan, egunak etorri, eta gure gurasoei esaten zien nor ikusi zuen erretzen eta nor berandutzen zen eskolatik etxeratzean. Eta norbaiti baloiak ustekabeen haren balkoira -bertan hazten zituen tabakoa, tomateak eta patatak- ihes egiten bazion, horrek zekarren ez bakarrik baloiari agur esatea, baita atsoak nola txikitzen zuen ikustea ere.

Baina haren biloba inguru haietako alproja lotsagabeenetako bat zen. Hamar urte zituenetik erretzaile amorratua izateaz gain, esaten zen pattarrez beteta zeukala bere moto gorriaren jarleku azpiko olio botila, eta agidanez polizia auto baten gurpilak ere zulatu egin zituen behin batean gaua polizia etxean pasarazi ziotelako. Denoi iruditzen bazitzaigun ere azken kontu hura apur bat puztuta zegoela -izan ere, zer poliziakidek jardungo luke auzoko gaztetxoek kontra mundua egiazko gaizkile petoz beteta dagoenean?-, Boki bezalakoekin ez zegoen koplatan ibiltzerik.

Egun batean, atso zaharrak Pekec-ek zeukan mundu txapelketako benetako baloia aitzoz txikitu eta gero, Boki jolastokian zegoen beste gaztetxoekin. Gu baino bost urte zaharragoa zen, eta erretzen ari zen, ohi bezala.

-Mutilak, zer emango didazue atso zaharrarengandik libratzen bazaituztet?

-Ez zekiat ba. Zer nahi duk?

-Zuen paga bat ematen badidazue hilero, ez dizue berriz eragotziko.

-Eta zer pentsatzen duk egitea?

-Hori nire arazoa da. Zuen arazoa, berriz, balkoira jaurtitako baloiak!

-Hori egia duk.

-Orduan, konforme?

-Konforme!

-Zuetako bakoitzak hilean behin bere paga bat eman behar dit atso zaharrarengandik libratzeko. Ados al zaudete?

-Bai! -bat etorri ginen, eta elkarri eskua eman genion. Frenki, Bokiren laguna, eta alboko jolaslekuko Primož, dendatik itzulia, izan ziren lekukoak.

Hurrengo egunean, atso zaharra eskaileretan behera erori zen. Patata zaku bat satora jaisten ari zelarik, estropezu egin, erori, eta halako kolpea hartu zuen, handik aurrera aulki gurpildunean ibili behar izan zuen. Bere burua zaintzeko gauza ez zela, eta Bokik etxean arazoak zituela, aurrerantzean Boki amonarenean biziko zela erabaki zen. Xuxurlatu zen halaber amona hildakoan bilobarentzat izango zela etxebizitza.

Boki bere puskak etxe berrira aldatzen ari zen oraindik osterata topatu genuenean aulki batean eserita, erretzen. Jakina, korrika hurbildu gintzaizkion zer gertatu zen jakin nahian. Esperoan utzi gintuen pixka batean, eta gero galdetu zigun:

-Zuetako inork ba al daki ausartzeak zer esan nahi duen?

-Ausartzeak esan nahi dik amona zaharra eskaileretan behera bultzatzea eta gero galdetzea: zertarako hainbeste presa? -Gutako batek, behintzat, bazekien erantzuna.

Bokik buruaz baiezkoa egin eta zigarreta hegan bidali zuen; gero argazki bat erakutsi zigun mugikorraren pantailan: amona agertzen zen, postura xeble batean etzanda sotoan, eskaileren ondoan, patatez inguratuta.

-Bitxia duk, gero: oraindik ez zekiat zertarako zuen hainbeste presa.

Gero esan zuen hurrengo astelehenerako espero zuela lehen ordainketa, hilaren amaiera izanik, eta ez ahazteko Bokik bazekiela zer paga izaten zuen bakoitzak. A. Eta beste gauza bat. Inork atzera egin eta ordaintzen ez bazuen, edo Poliziari deitzen bazion, ez genuen ahaztu behar Pehtarengandik libratzeko ordaindu geniola, eta horren bi lekuko zeuzkala. Eta hartara bihurtu ginen denok indarkeria ekintza baten laguntzaile.

Mutilon artean izua zabaldu zen, noski, bakarrik geundenean, eta egun haietan asko hasi ziren berriz ohean pixa egiten, baina astelehenean denok entregatu genuen dirua, eta harro esan dezaket inork ez zuela beste inor salatu. Gurasoek, irakasleek, Poliziak, inork ez zuen tratu haren berri ikasi.

Bizitzak aurrera egin zuen, eta gauzak laster egokitu ziren normaltasun berri hartara. Pixkanaka, ohitu egin ginen dirua biltzera, lasaiago geunden eta hobera egin genuen futboleak, nahiz eta, egia esatera, ez ginen hain maiz aritzen.

Tarteka zurrumurrak -adineko emakumeenak gehienak- hedatu ziren, atso zaharra bere zaintzailearekin ez zegoela pozik ziotenak. Amonak egoitza batera joateko zeuzkan planen inguruko xuxurlak ere ozendu egin ziren. Hori bai, Bokik ordaindu beharko zuen zahar-etxeke egonaldia -horretarako dirurik ez, ordea-, edo, bestela, etxebizitza saldu; baina hori ere ez zitzaion komeni. Egundean, dendara bidean, mutiletako batek hizketan aditu zuen Boki lagun batekin, amonak ihes egin zezan inongo beldurrik ez zuela esaten.

-Auzoko gaztetxoek zuregandik libratu nahi bazuten, zer uste duzu gertatuko zaizula zahar-etxean? -esan ohi zion-. Gainera, erretzearenaz pentsatu behar duzu, etxetik alde egin nahi baduzu. Zahar-etxean ezingo duzu erre, eta nik erosten dizkizut zigarretak.

Badaezpada ere, telefonoa ere kendu zion, esanez garestiegia zela eta mailegatuko ziola mugikorra. Amonak lagunekin kafea hartzen zuenetan ere, Boki ez zen urrun ibiltzen.

Egun batean, ordea, ihes egitea erabaki zuen amona zaharrak. Bere leiho azpitik pasatzen ari zen norbaiten arreta erakarri zuen eta kontatu zion bere bilobak nahi gabe utzi zuela etxebizitzan giltzapetuta, eta hiriko beste muturrean bizi zen ahizpa gaixotuari bisita egin behar ziola lehenbailehen. Konbentzitu zuen, eta gizon atsegin hark ez soilik sartu zen leihotik etxebizitzara aulki gurpildunaren bila, hiriko beste muturrera eramateko prestasuna ere agertu zuen. Baina Boki orduantxe itzuli zen, eta gizonari esan zion ez kezkatzeko, arduratuko zela bera amonaz. Eskerrak eman zizkion arrotzari, adeitsu, eta hirian barrena eraman zuen atso zaharra: polizia etxearen paretik, zahar etxetik, ahizparen etxetik, eta etxera itzuli zirenean bapo berotu zuen amona, auzoek jakinarazi zutenez.

Bi egun geroago, ostera zegoen aulkian eserita, erretzen. Gauza arraroa zen, asko falta zelako hilaren amaiera arte. Gutako bat hurbildu egin zitzaion zertan ari zen galdetzera, baina talde osoari hitz egin nahi omen zion Bokik. Proposamen bat egin nahi zigula: zorraren laurden bat barkatuko zigula urtean behin bere etxera joaten baginen, festa batera. Xehetasunetan dago deabrua, baina: festa hilaren hamabian izango zen, hau da, amona zaharra satora jaisteko halako presarekin zebilen hilabeteke egun berean. Eta Bokiri ezetz esatea gauza nekeza zenez -errespetu faltatzat hartuko baitzuen-, baietz esan genion, hartara gutxienez diru pixka bat aurreztuko genuela pentsatuz.

Hona nola joan zen festa. Bokirenean elkartu ginen jada uztailaren hamaikan, arratsaldean, eta eskaileretan lasterketa saio bat antolatu genuen hasteko. Goiko solairutik sotoraino. Saltoka gainditu genituen zortzi mailako eskailera tarte gehienak: bi, bi, lau; edo bi, hiru, hiru. Bakarrik satora jaisteko azken eskailera tarteak eskatzen zuen sei mailaren gainetik jauzi egitea. Atso zaharra behean zegoen, kronometratzen. Eta urteak joan, urteak etorri, ez zuen gutako inor orkatila bihurritzen ikusteko zorterik izan.

Gero, arratsean, patatak erre genituen egurrez funtzionatzen zuen ekonomikan -bai, atso zaharrak oraindik gordetzen zuen halako traste zaharkitu bat- eta tomate entsalada egin genuen, Bokik zigarro eskergak erretzen zituen bitartean.

Denbora osoan hizketan eta txantxetan jardun genuen, atso zaharrari egindako bihurrikeriez eta gurekin zerabilen gaiztakeriaz. Arratseko une gorena, noski, izan zen Bokik deskribatu zuenean Pehta nola erori zen eskaileretan behera, haren aurpegiera xelebrea, eta nola jo zuen patata batek kopetaren erdian; horrek egundoko algarak eragin zizkion Bokiri, eta guztiz ahaztu zen bere *zertarako hainbeste presa?* botatzeaz.

Atso zaharra gurekin zegoen, bai horixe, eta patata batzuk jateko indarra ere bildu zuen! Hori hasieran bakarrik gertatu zitzaigun deseroso; gerora, ez ohitu soilik, atsegin ere hartzen genuen zulatutako baloi guztien ordainean. Sotokoa gorabehera, sorgin zahar bat zen, eta gero eta gehiago ikasi genuen horretaz hari buruzko istorio berri bakoitzarekin.

Baina hurrengo goiza izan zen parte gogoangarriena, futbol partida jokatu baikenuen amonaren etxeko barruko patioan, eta atso zaharrak animatu behar izan gintuen. Partida bukatu zenean, Bokik amonaren portzelana finezko pitxer bat atera zuen hitzalditxo bat ematen zuen bitartean, eta gero hautsi egin zuen solemnitare handiz. Segidan, piknika egitera abiatu ginen, eta Boki satora jaitsi zen bere motoarekin lardaskatzera.

Istori guztietan dago ikasbideren bat, honako honetan izan ezik. Bokik berrogeita lau urte ditu, eta ez du bizitza osoan lan egin behar izan. Haurtzaroko bere «lagunek» ordaintzen dizkioten errenta ederretatik bizi da, haietako asko negozio gizon arrakastatsu bihurtu baitira bien bitartean. Astebete eskas barru hogeita bosgarren urteurrena ospatuko dugu, eta gaur arte ez du inork orkatilarik bihurtu. Atso zaharrari dagokionez, Jainkoak ez zion heriotza azkarrik oparitu. Laurogeita zortzi beteko ditu aurten, eta argi dauka burua. Askoren ustetan, gure ekintzak bidezkoak izan ziren seinale da hori.

Eskalea

Gregor Lozar

1.

Semearekin batera ibili zinen liburu apalen artean,
egun haietan jendeari artea erakusten niharduen,
eta mugikorra mailegatzeko eskatu zenidan,
dei labur bat egin behar zenuelako.
Dendatik ez irteteko esan nizun,
eta susmoz begiratu nizun
zuk trepeta ezagun batean menu bitxiak zabaltzen zenituen bitartean.
Gogoan zintudan urte batzuk lehenagotik, zu bizikletan,
nire inguruan jira-biraka, mugikor erabiliak
eta Davidoff zigarretak eskaintzen.
Lapurtu zidan gizona zinela uste izan nuen,
eta horixe galdetu nizun, zakar.
Irribarreari eusten ahalegindu zinen,
baina bai, bejondeizula, eutsi egin zenion,
eta galdetu ea seguru nengoen bera izan zela.
Ez nuen azterketa bat gainditu, eta urte batzuk joanda leporatu nizunean
zeure buruarentzako transferentzia egin zenuela telefonoz
-telefono sistema automatiko batera mezuak eta kodeak
bidaltzeko trikimailu berri batez-
tranpa berean erori nintzen bigarren aldiz.
Lapur bat zinela esan nizun semearen aurrean
eta popatik hartzera bidali zintudan denen aurrean.
Joan egin zinen, eta pentsatzen geratu nintzen
berriro ere ez ote nuen mingaina gehiegi dantzatu.

2.

Ez zenuen ezer lapurto, eta egun hartan bertan
kalean topatu zintudanean, hurbildu eta
bihotzez desenkusatu nintzaizun. Nahiko haserre zeunden,
baina berreskuratu zenuen nolabait neurritasuna.
Horrelakoak izugarriak baitira, istorio batean egokitu zinen,
inolako huts edo errurik gabe.
Gertatu zitzaidan, ordea, duela urtebete, etxera bidean,
neskalagun batekin liskarrean aritu ondoren,
bizikletan zihoan gazte batek geldiarazi
eta mugikorra maileguan eskatu zidanean.
Susmo txarrak nituen, baina utzi nion hala ere,
eta beste aldean erantzunik izan ez eta erabaki zuen
mugikorra gogoko zuela eta beretzat gordeko zuela.
Trepeta berreskuratzeko bide bakarra
hari oldartzea zela uste nuen,
baina iruditzen zitzaidan jotzen banuen,
lehengusu mordoa azalduko zela nonbaitetik
eta potroak txikituko zizkidatela.
Beraz, mugikorra eman eta alde egin nuen,
baina gogorra egin zitzaidan ez esatea: ijito malapartatua!
Ijito alaena, denak berdinak dira,
eta bizikletan azaldu zinenean, irribarretsu,
mugikor bat saldu nahian,
konturatu nintzen zu zinela ijito hura!

3.

Errudun sentituz, hamar euro eman nizkizun,
eta arrazista bihurtzen ari nintzen une hartan,
beldurtuta eta neure buruaz nazkatuta,
nola edo hala nire eskale partikular bilakatu zinen.
Maiz topo egiten genuen, eta beti esertzen ginen hitz egitera,
eta pixkana-pixkana zure historia osatu nuen,
nola epilepsiak arazoak eman zizkizun eskolan;
agian irakasleek nota igotzen zizutela,
arazoak saihesteko,
kontuan hartuta eskolen erdira ere ez zinela joan;
nola ziur aski lotsa zela eta erabaki zenuen
ez zenekiela irakurtzen ez idazten
-oi, zein goxo jardun genuen
bigarren eskuko liburu pilez inguratuta-
eta analfabeto ibiliko zenuela mundua;
nola ezagutu zenuen agian emaztea
ezkontza baino egun pare bat lehenago, ez zekiela
zure gaitzaren berri; eta hamabi urte zenituela
izandako hurrez, askotan
fardelak edo botikak falta izaten zitzaizkienak;
nola erabaki zenuen presondegian
zintzo bizitzea, familiarengandik urrunduz
eta Jainkoa aurkituz, auzoen txantxen artean;
nola lapurtu zizkizuten laurogei
mugikor sototik, negozioaren
akabera ekarri zuena;
nola ibiltzen zinen paperez betetako
maleta batekin bulego batetik bestera
ordaindu ez eta elektrizitatea mozten zizutelako,
babes sozialeko etxetik kale gorrian utzi,
eta goiz oheratzeak
gosea kentzen duela ikasita;
zure semeaz, nola erabaki zenuen
ez zuela ezkondu behar
institutua bukatu arte,
eta aipatzea ahaztu zaizkidan
hainbat eta hainbat gauza, garrantzitsuak direnak
-Halgatoren filmean ez bezala- ijito
esan diezaioten gogoko ez duen
buhame baten irudia osatzeko.

4.

Luzaro zeneraman ni zure etxera gonbidatuz, eta,
elkarri Eguberri opariak emateko gure ohitura gorabehera,
saihestu nahian nenbilen ni.

Eskuarki nahiago izaten dut jendea
etxetik kanpo topatzea, zelai neutralean, baina
beldurtzen ninduen ere janari arrotzaren usainak
eta etxebizitza agian zikina egoteak.

Arrats batean elkarrekin entzun genuen
Esma Redjepova-ren kontzertu bat Štuk-en,
eta zure lagunei esan zenien
polizia nintzela eta pistola neramala,
eta harritu egin ninduzun Esmari
erregina deitzen ironia apurrik gabe,
eta serio demonio hitz egiten jantzita
zeramatzan luxuzko soinekoez eta Skopjeko
etxeaz eta adoptatzen dituen hurrez, gerora
bere taldean jotzen duten horietaz.

Mingostasun apur bat zegoen erregina izenean,
eta itzultzean aditu nuen estreinakoz
erdialdea esaten diezula Studenci-ko
etxebizitza sail eta apartamentu blokeei.

Zure aitonaren etxea ere hor dago,
haur gehiegi, zenioen, beti bihurrikerietan,
bizitza osoa saihesten daramazuna,
eta, urrun gabe, egotzi zintuzten etxebizitza.

Alda egin zenuenean, ordea, ezin izan nuen gehiago luzatu,
eta bisita egin nizunean konturatu nintzen
zein zikina zegoen nire etxebizitza.

5.

Kafea hartzen ari garen egun batean, pentsatzen ari naiz
arima ijitoaren inguruan esan zidatenaz:

gaztetxoek aitari eskatzen diotela arropa berria
erosteko, festa batera joan behar dutelako.

Gustura erosiko nizueke arropa, baina ez daukat dirurik.

Zaharragoak direlarik, berriz eskatzen diote dirua
auto bat erosteko, mundua ezagutzeko.

Gustura erosiko nizueke autoa, baina ez daukat dirurik.

Eta, honezkero haziak, dirua eskatzen diote aitari
etxebizitza bat erosteko beren emazte eta haurrentzat;
eta aitak erosiko luke, bai: dirua falta, ordea.

Urteak pasata, aita hiltzear dago eta seme-alabak
inguruan dituela, hauxe esan die:

asko maitatu izan zaituztet, haurrak,
arropa, autoak eta etxeak erosiko nizkizuekeen,
bai munduaren erdia ere, baina zer nahi duzue,
latza da bizitza dirurik ez dagoenean.

Konturatu zinenetik galtzerdiak erantziko
nituela zuri emateko, ez nauzu gehiago hertsatzen.

Dirurik ez badago, ez dago, eta kito. Jada ez zara
eskalea, aspaldi bihurtu ginen lagunak,
eta azken honetan lagunekiko lotura gehienak
bertan behera utzi baditut ere, zure begietan soilik
ikusten dut tristura, hori dela eta.

Eta, hasieran ez bezala, pena ematen dit amaieran.